

## Joan Martinez Alier. Ekonomia aztertzen ekologiaren betaurrekoekin



AXIER LOPEZ

Bartzelonan jaio zen Joan Martinez Alier, 1939an. Bertako Unibertsitate Autonomoan ekonomia katedraduna da, baita *Ecología política* aldizkariko zuzendaria ere. Ekologia politikoaren eta ekonomia ekologikoaren arloetan erreferente ezinbestekoa da Martinez Alier. Ekologismoaren iraganeko eta gaur egungo kezka nagusiez hitz egin dugu harekin.

### “Ekonomia ortodoxoak suntsiketari ‘ekoizpen’ esaten dio”



Unai Brea  
@unaibrea

### Espainiako trantsizio ustela

“Ekologismoaz gain, Espainiako trantsizioa ere aztertu dut sakon. 70eko hamarkadan, Franco hil aurretik, *Cuadernos de Ruedo Ibérico* aldizkarian argitaratu genituen aurreikuspenetako asko bete egin ziren. Besteak beste, salatu egin genuen Alderdi Komunistak ‘berradiskidetze nazionala’ lortzeko egindako deialdia. 1977an ikusi zenez, ondorioa frankistek euren buruei emandako amnistia izan zen”.

Bizitzaren zati handi bat eman duzu ekologia politikoa aztertzen eta garatzen. Bada go hori zer den hitz gutxirekin azaltzerik? Bi arlo daude. Batetik ekonomia ekologikoa dugu; ekonomia ortodoxoaren kritika da, bai keynesiarrarena, bai neoliberalarena, bai marxistarena, ingurumenaz ahazten direlako. “Ekoizpen” esaten diote suntsiketari. Ikatza, petrolio eta gasa erauzi eta erretzea, geologikoki, ez da ezer ekoiztea, sunstiztea baizik. Era berean, ekonomia ortodoxoak ez die arretarik eskaini zenbait kalteri (klima aldaketa, biodibertsitate galera...), eta kanpo-efektu esaten die. Azken batean, kapitalismoa kostu sozialak desbideratzen duen sistema bat da: txiroei, etorkizuneko belaunaldiei... Eta ekonomia ekologikoa kritika egiten dio horri. Haren jatorria ekonomiaz interesa duten ekologoengan dago, eta “damututako” zenbait ekonomialarirengan.

#### Eta ekologia politikoa?

Diziplina akademiko modura, geografiatik, antropologiatik... Eta praktika modura, mundua aldatu nahi duten aktibistengandik.

1972an Erromako Kluba GKEak *Hazkundearen mugak* txosten ospetsua argitaratu zuen. Hori izan al zen ekonomia ekologikoaren abiapuntua?

Bai, baina baita ordurako existitzen ziren hamaika ingurumen borroka ere. Edozein kasutan, esan beharra dago *Hazkundearen mugak* txostenak erreakzio handia eragin zuela Europan. 1972an Europar Batasuneko presidente zen Sicco Mansholtek esan zuen hazkunde ekonomikoa eten beharra zegoela, hazkunde negatiboa behar zela.

Baina hazkundearen aurpegia edertu egin zen. 1992ko Rio de Janeiroko gailurrean agertu zen “garapen jasangarri” kontzeptua.

Europar sozialdemokraziaren berariazko erreakzioa izan zen. Ez intelektualki ez politikoki, ezin zuten onartu hazkunde ekonomikorik ez egotea. Hazkundera petrolio merkean oinarrituta zegoen, eta sistema hartan posible zen banaketarik gabe ere jendea gutxi gorabehera pozik egotea, “fordista” esan diezaiokegun garaian. Horretan dabilta Europar 1945etik, eta etekin ona eman

*Martinez Alier Mexikon, hitzaldi bat ematen. Munduko aditurik handienetakoa da ekologia politikoaren alorrean; nazioarteko hamaika ingurumen gatazka hurbiletik aztertu eta haien berri eman du bere liburuetan.*



ADRIANA GONZALEZ

die hauteskundeetan, are sozialki ere. Hala, Keynesen jarraitzaile askok betiereko hazkunderako eredu ekonomikoak diseinatu zituzten, eta horiek eragin handia zuten politiketan. Azken batean, zenbait sektorek bat egin zuten ekologismoaren aurka, “garapen jasangarria posible da” esanez. Baina garai berean hasi zen garapen ideari berari kritika, hainbat egileren eskutik. “Garapenak denok hartu behar dugun bidearen irudi uniformetzailea dakar”, esaten zuten, “denok *American way of life* delakora; hori ez da posible, eta gainera ez dugu nahi”.

**80ko hamarkadaren hasieran hain indartsu ibili zen neoliberalismoak izango zuen zeresanik...**

Neoliberalismoaren tradizioan merkaturia erregea da. Baina merkaturia itsua da etorkizunari dagokionez. Edo, zehatzago esanda, miopea da bi urteko eperako, eta itsua hamarrerako. Horregatik, neoliberalismoak nahi eta ez bazterrean utzi behar du ikuspuntu ekologikoa. Merkatuak ez du tresnarik arazo horien aurrean zer egin erabakitzeko. Harta-

ra, neoliberalismoak erlijio-sekta batek bezala jokatu du, “merkatuak dena konponduko du” sinetsita. Absurdua da hala pentsatzea. Edozein kasutan, gu sozialdemokraten aurka borrokan ari ginela bat-batean agertu ziren Thatcher eta Reagan, ekologismoaren aurkarietan aurkarienak. Hortik dator gaurko AEBetako errepublikanoek klima aldaketa ukatzea. Hain dira ekologismoaren kontrakoak, zientzia ere mespretxatzen baitute.

**Hazkundearen mugak txostena idatzi eta ia 45 urtera, hark dioena inoiz baino agerikoa denean, hazkunde ideiak hegemoniari eusten dio.**

Ez dut uste. Astiro bada ere ingurumenaren aldeko kontzientzia eta erantzuna hazten ari dira, agian lehengoa baino ekologismo zabalago batekin.

**Zabalagoa izateak esan nahi du ez dela hain politiko?**

Beharbada ez hain kontserbaziozalea, eta sozialagoa. European izaera politikoa galdu du alderdien politikari dagokionez. Alderdi berdeek ez dute arra-

kastarik izan oro har, eta eduki duten lekuetan, adibidez Alemanian, ez dute hitz egiten Iparraldeak Hegoaldearekin duen zorraz, merkataritza ekologikoki desorekatuaz...

**Gutxiengoa izan arren, badirudi loratzen ari direla trantsizio mugimendu esaten zaienak. Fenomeno berria dira?**

Esango nuke baietz. Lehen eztabaidatu egiten zen kapitalismotik sozialismoranzko trantsizioaz, zein bide zen egokiago, hauteskudeekin Allendek Txilen bezala, edo Kubako eran... Baina trantsizio integrala, aldi berean soziala, ekonomikoa, feminista eta ekologista, ez zen existitzen. Sortu den ingurumen justiziaren aldeko mugimendu globalaren barruan dagoela uste dut; zorionez mugimendu horrek ez du *politburo*-rik, elkartzen diren sareak dira. Zabaldago dago Hegoaldean, baina European ere ematen da, honako oinarriekin: batetik, ekonomia ez da haziko; eta bestetik, ez dugu hazteko beharrik, ondo bizi gaitezke hori gabe. Gainera, zenbat hazi behar genuke? Bi halako? Lau halako? Eta zertarako? ■